## PRODUKTUAREN DESKRIBAPENA

Bi mota ezberdineko energia iturri berriztagarriak aurkeztuko ditugu. Bata hezetasunaren bitartekoa (Wet Watch) eta bestea, marruskaduraren bitartekoa (Pivot).

Lehenengo, Whet Watch-a, giroan dagoen hezetasunaren bitartez edota gure gorputzak eragiten duen izerdiaren bitartez, aparatu elektronikoak, mugikorra, edota erlojuak bezalakoak, bakarrik kargatu ahal izango dira. Hori egiteko, 36 zentimetroko aparatuak erabili beharko lirateke. Plastiko malguan inprimatzen dira horiek, material seguruetan, eta jasangarrietan.
Gainera, egunkarietako orriak inprimatzen diren era antzeko batean inprimatuko lirateke, eta horrela, forma desberdinak eman ahal zaizkie, gailu desberdinetara egokitzeko.






Bigarren produktua Pivot-a da, gurpilaren barruko partean konektatzen den karratu formako aparatua. Aparatu horren barruan, bi kapa daude: bata positiboa eta bestea negatiboa. Garraioaren gurpila errepidetik doala, bere aztarna deformatzen du, bi kapak elkartuz. Horrela, marruskadura bidezko karga gisa ezagutzen den elektrizitate estatiko mota bat sortzen da, autoaren baterian biltegiratzen dena. Elektrizitate hori garraioaren argia edota irratiarentzat erabiliko litzateke.
Bi gurpileko pivot aparatu bat jarri beharko da eta ibilgailu batek lau gurpil baditu, bi pivot erabili behar dira, energia gehiago produzitzeko bi gurpilen mugimendua behar delako.



